

GAZTE NAIZ

ASTETIK ASTERA

(1965-X-16)

Villena idazleak esan omen zuen, bere ideiak azaltzeko ez-baiañan estaltzeko eman zaiola gizonari hitz egiteko ahalmena. Eta hantaz jendea oharturik, nik uste, hitzez ez du kaso haundirik egin ohi.

Egia esateko ideia nagusi hori Ebanjelioetan ere aurki ditek, liburu santuan hau esaten baita: zugaizta frutuak ezagun.

Horiek horrela, hitzak ez du inarririk batera hitzen ondotik eginak ez datozenean. Predikurik onena esenplua da. Hobeki esateko: esenplua da prediku bakarra. Hitzez predikatzea denbora galtzea besterik ez da.

Eta hori bera ere: hitzak eta eginak alkarri lotuak ez dirazenean kalte ere egiten baitaie hitzen bidez defenditzen diren ideiei. Hau ongi jakin dute apostolutza egin duten guziek: norberaren bizikera eta hitzak bestelakoak diralarik, kitto: ez dago ere sinistatzerik.

Eta huni buruz euskaltzaleok, euskaldun geran aldetik, badugu zer ikasirik.

Askotan hitzegin ohi dugu gure hizkuntzaren hein edo egokera gaistoz. Zenbat eta zenbat "euskaltzale"ren etxean ez da nagusi erdera halere, hizkuntza bakarra ez danean? Nork sinistatuko ditu halakoak, nor bultzatuko dute halakoak, hitzen ondotik esandakoaren ukiera oso datorrela? Erderaz beharrik gabe ari dan "euskaltzalea" ez da euskeraren etsaia baizik. Bere etxetik euskera aterarazi duen euskalduna bereziki, ez da euskaltzale, eta ezin izan ditek.

Askotan entzun ohi dugu gure hizkuntza ikastea zailla da. Eta ukatzerik ez dago, gure hizkuntza funtsez baita erderatik urrun. Zenbatek ikasi dute, ordea, latiniaz Euskal Herrian? Apez eta fraile guziek, hasteko. Zenbatek frantsesez edo ingleseraz? Egin zazu kontua zerorrek. Ez da halere maizago entzuten inglesa euskera baño.

Askotan entzun ohi ditugu ere txatxukeri franko gure hizkuntzaren etorkizunari buruz. Halere erraza da hizkuntzen norabeherak aztertzea. Erraza da, xuxen jokatu nahi izan ezker behintzat, hizkuntza bat zer dan, eta zergatik goratzen dan eta zergatik behititzen. Ongi da gaixo dagoen gizonari egia ez salatzea? Ustelkeri haundia dago euskaltzaleen artean, nere ustez; eta egia nabarmenak askotan ikusi nahi ez izatea garbi agertu ohi da.

Askotan ikusi ohi ditugu euskaltzaleak, bukatzeko, bigunkeritan murgildurik, aitzekitan eta asmutan, euskera salba dezatekean bideetatik aldeginik, hauek erdaldunen eskuetan utzirik. Hortara ere, euskera idatzizaren batasunaren kontra ikusten ditugu "euskaltzale" batzuk.

Euskaltzaleak horrelakotan egon ondoren, euskera heriotzarako bidean egongo da. Gure hizkuntza zintzotasun eta ausardia osoak eskatzen dizkigu. Behar dan bezela, esenpluaz beraz, jokatzeko ez duten euskaltzaleak, hizkuntzaren kaltetan ari dira.

Zugaizta frutuak ezagutarazten du.

GOIENETXE

M. K. URANGA

Emakumea...

Arrituta gelditu nintzen, egun batean, gizon batek nere lagun batez esan zituen itzak entzutean:

«Neska ori jatorra da, bai, bañan berarekin itzegitean gizon batekin itzigiten ari naizela iruditzen zaitu.

Orduan zergatik pentsatzen zuen orreala galdetu nion. Ze arrazoi zeduzkan gauz aiek esateko...

Erantzuna au izandu zen:

«Neska ori politikan, maitasun goraberatan oso serioiski jarduten da gizon bat bezela, sozial kontuetan ez da atzera gelditzen. Oiekguziek ez dira emakume baten arazoak, orrela jardutzean gainera esan ditek emakumetasuna galdu egiten zaiela».

Nik ez dakit gizon asko izango diran eta orretan pentsatzen dutenak Baietz esango nuke, eta geiago oraindik, batzuentzat beintzat sukalde basterrean egoteko eta gizonaren atsegingarri izateko sortua izan da.

Eta noski, emakume bat, Vietnam'go gudaratzaz, huelgatuz eta abar itzigiten badu, emakumetasuna galtzen du, bañan aruten zer soñeko ta orrazkera ematen diran batetik, Rock Hudson bere azkeneko pelikulan zoragarria dagoela beste-rik, jarduten diran neskek, nik us-ten det gizasemeak nai dituzten be-zelako emakumeak dirala.

Gizon guziet ez dakit gejenak bai beintzat, emakumea kanpotik itzurazkooa izatea nai dute bakarrik eta orduan neskek apaintzen bakarririk saiatzen dira, besterik gabe.

Beraz gizonak eskatu zaiozute geiago emakumeari orrela bakarrik lortuko dezute aldatzea.

MUSIKA GAZTE

Danontzat ezaguna da Ingle-rran zala bere sorlekua, zuzenago ibiltzearen Liverpool izenako erri batearen, erdi existenzialista zulo oietako batean jaio izan zala, esan bearko det.

Lau gazteek sortu zuten oitura berri bat, ifiorik sinistu zitekean baña lenago, ludiari jira bira osoa eman dion tankera berri bat.

Orain dala bi urte, abeslari ba karrak Elvis Presley, Frankie Av-alon, Cliff Richard eta olakoak zi-ran famaren gallurrean arkitzen ziranak, abeslari piñak ziran, ro-mantizismos betetako abestiak ja-rri zituzten modan: auek lortu zi-tuzten zarragoeri ere atsegin zi-tzaioten doñu bat. Baña gazteak aguro aspertu ziran, zerbait berria bear zuten, ezberdina, orrengatik John, George, Paul eta Ringo, lau gazte auek Beatles izenarekin eta orduarte ez ezagunak ziran ille lu-ze eta jazkera arrigarri oiekian azaldu ziranean, berealaxe gaz-teak, gauz berriaren bila zehil-tzan aiek, egarria kentzeko edari aukerakua arkitu ziran.

Askok bestela uste arren, nik ez det uste iritxi diran lekura jaz-keria edo melena gaitik izan da-nik, dudarik gabe musikalarri be-zela onak dira. Erabilzen dituz-ten abesti gejenak beaiek sortuta-koak dira eta oso lan onak lortu dituztelakoa nago. Aginduta be-zela, euskeratutako abesti berri bat azalduko det gaur, eta ain zuzen Beatles'ek sortu eta beren berri azaltzen lagundu zituan bat.

MAITE ZAITU

Maite zaitu bai, bai, bai, bai
maite zaitu bai, bai, bai, bai
maite zaitu bai, bai, bai, bai
Bere maitasuna
galdu dezula usten dezu
atzo ni berekin
atera nintzalako.
Baña, maite zaitu.
Berak auxe esan zidan
maite zaitu
eta au pozgarri da.
Zuk bera mindu dezu,
zugatik burua galdü du

baña berak badaki
zu etzerala olakoa
maite zaitu
berak auxe esan zidan
maite zaitu
eta au pozgarri da u, u, u.
Maite zaitu bai, bai, bai (bis)
maitasun orrekin
zoriontzu izango zera
Zure eskuetan dago
arrokeriak mindu deike
ondo pentsa zazu
eta barkamena eska zaiozu
maite zaitu
berak auxe esan zidan
maite zaitu
eta au pozgarri da.
Maite zaitu bai, bai, bai (bis)
maitasun orrekin
zoriontzu izango zera (bis)

ARANTXA GURMENDI

DISKA BERRIAK

The Beatles: "Help" pelikulako abestiak.

Oso interesantea iruditzen zait Beatles'en bigarren filmako abes-tiak azaltzen dizkigun diska au, ainbeste eta-baيدا sortu dituan konjuntio onen eboluzioaren asie-ra izan bai ditek. Beatles'en ka-rakteristika bereziak, instrumen-tu laguntzaileen konjuntusuna eta abots-tekniika izan dira beti; dis-ka onan abots-tekniika aldatzen asi dirala dirudi. Orain arte, bat solista zan eta besteak laguntza-ileak; oraingo onan laurak solis-tak dirala esan genezake, bako-l-tzak ba du bere lana, eta naiz lau-retako bat "solista nagusia" izan ba dira, besteak (kontraktantua uga-rituz...) laguntzaile bainan zer-bait gelago.

Alaz ere eboluzio onen frutu mordulak ikusteko urengo diskak agertu arte itxaron bearko degu...

Pelikulako abesti nagusia, "Help!" (socorro!) izenokoa degu. Alpagarria, Harrison, kitarra-jotzale solistaren lana. "The night before" ("Bart") izenokoa dala onena esaten dute askok. Bañan nere iritzi, "You're going to lose that girl!" ("Neska galduko dezu") "Beach Boys" ("Ondartzko muti-da diska ontako abestirik onena, llak") konjuntio ospetsuaren estil-oa gogoratzen du. Eta azkenez, "Another girl!" ("Beste neska bat"), Lennon'ek abestua. Lau abestiak Lennon eta Mc Cartney'k eginiak dira, ia beti bezela.

P.

Bestelakoak al gera?

Kirolak, orra or gaurko aukeratu detan gaia. Ez bil-durtu ordea, ez naiz futbolista edo baloia ostikoka ibil-tzen diran oietakon bateri buruz idatzeko asmotan. Gazte batzueri entzunak bultzat diu gai onetaz idaztera.

Lau gazte ziran aldizkari onen kirol orrian zerbait ida-tzi bear zutela ta nundik jo ez jakinez. Eguneroko guziak kirolari buruz zenbait orri betetzen dituzte ta lau gazte euskaldun zertaz idatzi ez jakitea ez zitzaidan tamalga-rria iruditu, zertarako gezurretan ibili.

Lotsagarria iruditzen zitzaizoten futbolistari buruz ari-tzea. Onela zioten:

—Ezin ditekena dek. Ori ez dek kirola ta ez demontre. Oiek dirua bakarrik ditek elburu, ta neurri gabe gaiera. Askok gizontasunaren arraziorik ere ez ditek. Idolo be-zela agertu nai dizkiguten oiek, ez al dezute ikusten nola portatzen diran? Joandun egunean ere beren arbitro edo epaillerei goieneko mallan dogoen batek (dirua erruz or-daintzen dituela esan nai du orrek) ez ataskeri esan zi-zikon jakingo dezute. Ta guk oiek gauz aundi bat balira bezela beintaz itzegin? ez, ori ezin ditekena dek.

—Utzi dezagun ori orduan; nola nai jendeak gari ori pozik irakurzen duala ez diak ukatuko Astelenetik ekin eta aste bitarte osoan egunerokoak zertaz ari diran ikuste ituk.

—Bai, ikusten diat bai. Bañan irakurlearen errue danik.

ez diat uste. Orretara oitu dizkitek eta beak asko kontu-ratu gabe, besteak egindako bideetatik or jarraitzen ditek.

—Beno, idatzi dezagun emengo, euskal kirolari buruz. Gara onetan beintzat beti izaten dituk apostun batzuek, aizkolariak, korrikalariak dirala eta abar.

—Gauz bat kontuan izan bear diugu, emengoak dirala-ko ez dirala orregaitik bakarrik onak, eta orrek diokan bezela apostu artean saritzen ba gera, ez diagu ezer garbi-rik aterako. Dema, Aizkolari, korrikalariak eta era oneta-ko zenbait kirolatan diru geiei izaten dek tartean ezer garbirik ateratzeko. Sartu aiz oien artean ta bapo atera-ko aiz.

—Au dek itillua au. Kirolez inguratua gaudek eta beratzaz idatzeko kemenik ez daukagu. Bide auetatik gau-zak gaizki dijoatzela ikusten digu, bañan ezin aurka jeiki; eguna joan eta eguna etorri, itxoin, lasai egon, zuzen-duko da, gu ez gera besteak bezelakoak... tentelkeriak.

Bitartean arra bazter guziak janaz.

Iñoiz futbolean izana naiz. Antxe beste guzien artean, ixtu, ixtu eginda. Inguruan beti izaten nuan zalaparta za-len bat, futbolistak agertu ordeko oieka eginen ziona. Leendabiziko aldiatan irripir egin arazten ziaten; asko igaro baño leen aspertu zidaten ordea. Ongi auk; esaten diran gauzak, kirolakin ez dute ezer ikusirik. Azken egu-nean neure aurrean gertatzen ari zana ez dut aztko; ura geiegia iruditu zitzaidan. Aurrean nuan gizon ura par-tidu gauzauz oieka aritu zan, itxura zanez bere ekipoko gazteak ez ziran besteak bezin onak, ain trebek, ta: bul-tza iok, jozak pataez, derrepente akaba zak zeri ori; oiek ziran bere itzak emen agertzeko eraokak. Alako batean alboan zeukan mutikoak galdetu zion: Aita, Joxek, Mar-tin'eri bere baño azkarrago dala ta nola utzitzen dio au-rrera artzen? zankailla zergaitik ez dio jartzen?, eta aitaren erantzuna: Joxe alu bat besterik ez dalako, gizontasun pi-xka bat izango ba lu...

Gizontasuna eskatzen zuan aita onen, bere semeari ere orixe bera eskatuko dio iñoiz; ez alperrik.

Ez du erreza gaurko gazteak burua jasotzen, bañan bear bearezkoa du. Malda bera onan ezin jarrai gene-zake. Gizonak nai ta naiezkoa du ideal bat eukitzea, bere bizitzak ararasi bat nai ta naiezkoa du, ori kentzen ba zaiote ez du bizitzak mereziko. Kirola bai, bañan gizon egiteko.

BEOBIDE